

OGP EUSKADI 2021-2024

GOBERNU IREKIKO IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

A. ENTREGA-DATA: 2021-7-30

B. IRAUPENA

B.1 Egungo administrazioaren amaiera: 2024-12-31

B.2 Ekintza-planaren aldiaren amaiera: 2024-12-31

C. HITZAURREA

Lurralde-mugikortasuna egunerokoaren parte da Euskal Autonomia Erkidegoko edozein herritarrentzat (lurraldeak 7.200 km²-ko azalera du): badago lantokia Gasteizen izan, bizitokia Bilbon eta familia Donostian bisitatzen duenik. Elkarrengandik hurbil bizi gara. **Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren bizitza eta parte-hartze politikoa eskumen- edo erakunde-mugez ulertzen ez duten espazioetan eta uneetan zertzen dira.**

Inguruabar horrek etengabeko berrikuspen eta eraldaketa eskatzen digu. Eta **erakundearteko lankidetz**a, guretzat, **gobernu irekiaren ereduari eutsi behar dion oinarria** da. Gobernu mota horrek herritarren esperientzia, jakintza eta proposamenak jasotzen ditu ekintza publikoan.

la-ia «herrialdetxo» bat gara, **eskumen deszentralizatu ugari** dituen, ezin aproposagoa gobernu irekia gutxiago edo gehiago garatu duten beste hiri/eskualde/herrialde batzuetan aplikatu ahal izango diren **proposamenak bertan probatzeko**. Berrikuntza-laboretegi bat, egitateen bitartez erakutsi ahal izateko **erakundearteko koordinazio irmoak baterako sorkuntzako prozesuak indartzen dituela** eta gobernu eta lurralde irekiagoen garapenerako oinarri sendoa ezartzen duela. Uste dugu **Euskal Autonomia Erkidegoko eredu OGP sarearen interesekoa** izan daitekeela ezaugarri horrexegatik, hain zuzen.

Gure proposamenean, **lehen helburutzat hartu dugu hobeto koordinatzea gobernu irekiko politikak** eta haiek politika sektorialetan duten eragina, hasi kudeaketa-maila hurbilenetatik, alegia, udaletatik (Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz), jarraitu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiekin, eta Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen politika eta proiektuetaraino. Gure helburua da, herritarrekin batera, **bi motatako konpromisoak jasoko dituen ekintza-plan bat diseinatzea**:

- **Konpromiso horizontalak**, gure ekintzen zeharkakotasuna xede dutenak. Konpromiso berak gobernu-maila beretarako, askotariko ñabardurak eta ikusmoldeak txertatuz esperientziorako, partekatutako balio batzuk abiapuntu izanik: inplikazioa eta lankidetz
- **Konpromiso bertikalak**, lehentasunak eta ereduak ezartzea xede dutenak. Hiru erakunde-mailak gobernu irekiaren eredu komuna finkatzeko ekintza eta prozesu egituratu eta garrantzitsuak adostu eta garatuko dituzte.

Euskadin dagoeneko lanean ari gara gobernu irekiaren ildotik. Gure erakundeek Gobernu Irekiko planak eta kontuak emateko partaidetzazko estrategiak garatu dituzte dagoeneko. Eta **konektaturik** dihardugu, hainbat saretan parte hartuz, besteak beste, Eskualde Batuen Erakundearen (ORU/FOGAR), United Cities and Local Governments sarean (UCLG) edo Demokrazia Parte-hartzailearen Nazioarteko Behatokian, eta 2018tik aurrera, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzan, nazioz azpiko mailan.

OGP Euskadiren lehen ekintza-plana (2018-2020) gauzatzea erronka handia izan da, eta arakastaz burutu da, egindako **ebaluazio** partekatua emaitzek erakusten duten bezala:

- **Ezarritako antolaketa-ereduari** dagokionez: OGP Euskadi osatzen duten 5 talde eta foroek emaitza nabarmen ona lortu dute beren eginkizunetan (10etik 7 puntu baino gehiagoko batez besteko balioespenak).
- **Konpromiso bakoitzaren betetze-mailari** dagokionez: oro har, betetze-maila handia hautematen da 5 konpromisoetan (10etik 7 puntu baino gehiagoko batez besteko balioespenak).
- **OGP Euskadi webguneari eta ematen duen informazioari** dagokionez: 10 parte-hartzailetik 8k webguneko eduki orokorrak ezagutzen dituzte, eta, oro har, eduki ezagunenak 3. KONPROMISOARI buruzkoak dira (% 56,3), hau da, herritarren partaidetzako berrikuntzaren ilab-ari buruzkoak.

Eta garrantzitsuena da ebaluazio partekatu horri esker **hobetzeko alderdiak** azaleratu direla, eta, haien bidez, gure gobernuen irekitasunean ikasten eta berritzen jarraitu ahal izango dugula, baita politika sektorialetan aplikatzen ere. Badakigu komunikazio-estrategia hobetu behar dugula, gizarte zibilak eta gizarte antolatuek parte-hartze handiagoa izan dezaten erabaki-organoetan, parte-hartzaileak askotarikoak izan daitezen eta gizarteko sektoreak ordezkatuago egon daitezen.

Euskadi dagoeneko bada lurralde irekia, baina irekiagoak izan nahi dugu.

2021-2024 Plan berriak aurrera egin nahi du herritarren esperientzia, ezagutza eta proposamenak ekintza publikoan txertatu nahi dituen **EAEko gobernu irekiko ereduan**. Horretarako, herritarren proposamenak jasotzeko formulario ireki bat **zabaldu** zen. Formulario hori 2020ko uztailean egindako foro ireki batean partekatu zen, bai eta online ere, webguneari bidez. Guztira betetako 175 formulario jaso ziren.

Herritarren eskutik jasotako lehenetasunei dagokionez, honako hauek aztertu ziren: haien bideragarritasuna, irismena, eta eragina izateko aukera, erakundeen prestasuna haiek gidatzeko, eta zer transferentzia-gaitasun duten, eta zein lotura erakunde-maila desberdinek eta eragile sektorial publikoek eta herritarrek parte hartzen duten politika publikoekin. Horrela, 5 jarduera-ildo posible sortu ziren, eta Foro Erregularrak aztertu zituen. Eragile anitzeko foro hori EAEko administrazio publikoen eta gizarte zibilaren gehiengoaren ordezkari osatuta dago. Ildo bakoitzerako lidergo instituzionala identifikatu ondoren, herritarrek, adituek eta erakundeek iritzia emateko taldeetan, ildo horien irismena, esperotako emaitzak eta exekuzio-mugarriak zehaztu ziren. Konpromiso bakoitzaren baterako diseinua berriz kontrastatu zen Foro Erregularrean eta 2021eko uztailean egindako Foro Irekian.

2021-2024 ekintza-plana batera diseinatzeko eta hura gauzatzeko prozesua lehenengo planean diseinatutako antolaketa-ereduan oinarritzen da. Antolaketa-eredu horrek baliozkoa zela erakutsi zuen. Honako egitura du:

- **Talde Sustatzailea:** OGP Euskadiren bultzatzailea da, eta, besteak beste, honako hauek zehazteaz arduratzen da: hedapen- eta komunikazio-plana, antolaketa-eredua, ekintza-plana egiteko prozesua, ekintza-plana ezartzeko bitartekoak eta emaitzen autoebaluazioa. EAEko 7 administrazioek osatzen dute (Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalak) eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia lankidetzan publiko pribatuko elkarteak.
- **Foro Erregularra:** eztabaidarako eta proposamenerako organoa da, planaren ezarpena monitorizatzen du, autoebaluazioari buruzko erabakiak hartu, eta zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu. Foro erregularrak idazkaritza tekniko bat dauka. Honako hauek osatuko dute: talde sustatzaileak OGPrean aurrean izendatzen duen erakundeen teknikari arduradunak eta Innobasque proiektuaren arduradunak – hautagaitza sustatzen duen gizarte-eragilea–. Bi pertsona horiek bitartekari gisa jarduten dute Foru Erregularreko kideekin, baina horrez gain lan-saioetako idazkariak eta lan teknikoen eta dokumentuen kudeaketaren koordinatzaileak ere izango dira. Foro Erregularra 11 herritarrek (antolatuta egon zein ez) eta EAEko administrazioetako 7 kidek osatzen dute.
- **Foro Irekia:** kontsultarako, kontrasterako eta proposamenerako organo birtual eta presentziala da. Eztabaida-ekitaldietara gonbidatzen dute eta planaren prestaketa, jarraipen eta ebaluaziorako deialdia jasotzen du, horretarako sortutako OGP Euskadi web-plataformaren eta harremanetarako beste kanal batzuen bidez, kontsulta ahalik eta gehien zabaltzeko.
- **Konpromisoen araberako taldeak:** konpromiso bakoitza inplementatzeko sortutako lantalde irekiak dira. Beren jardueraren kontu ematen dute eta, lankidetzan publiko-pribatuaren bitartez, konpromisoan jasotako mugarrietara iristen laguntzen dute. Taldekideen artean daude herritar antolatuak eta antolatu gabeak, konpromisoa betetzean zerbitzu-hornitzaile gisa jardun ezin duten ikuspegi adituko pertsonak, eta erakunde-maila desberdinetako ordezkariak. Herritarren, adituen eta administrazioaren ikuspegiak batzea da helburua, politika publiko erkidearen ikuspegia eratzeke.

D. ERANTSI JAURLARITZAREN TITULARRAK, HALAKORIK IZANEZ GERO, IDATZITAKO AURKEZPEN-GUTUNA.

E. GOBERNU IREKIKO ERRONKAK, AUKERAK ETA IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

E.1. Zein da gure epe luzerako ikuspegia gobernu irekirako?

OGP Euskadik epe luzera duen ikuspegia, hasierako berbera da, hots, 2018an Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzarako hautagaitza aurkeztera bultzatu zuena: Euskadiko 3 lurralde-mailen arteko lankidetzan EAEko herritarrekin elkarlanean, gure ekintza publikoa irekitzeko, erronka eta desafio sozialak gero eta konplexuagoak eta aldakorragoak diren honetan. Hala, gobernu irekiaren arloan, espazio komun bat eratu nahi da, OGP Euskadi osatzen dugun erakunde ororen eskumen-banaketa, autoantolaketarako ahalmena eta autonomia errespetatuko dituen.

Eta lurralde irekia izango bagara, gobernu irekiko eredu partekatua taxutu behar dugu; eredu horretan, herritarrek ezagutzeko, parte hartzeko eta balio publikoa sortzen lankidetzan aritzeko

dauzkaten aukerak berberak izango dira Euskadiko edozein lekutan, edozein izanik ere kasuan kasuko eskumena kudeatzea dagokion erakunde-maila.

Helburu hori konplexua da, eta erakundearteko lidergo sendoa eskatzen du, bai eta lankidetzako ikaskuntza eta ibilbide luzeko prozesua ere. Hain zuzen ere, ibilbide hori Lehendakariak bidalitako baterako hautagaitzarekin hasi zen, eta 2018-2020 Ekintza Planaren baterako sorkuntzarekin jarraitu du aurrera. Ekintza-plan hori prestatzea erakundearteko lehenengo apustua izan da, eta apustu hori pixkanaka gauzatu da, plan hori inplementatu eta ebaluatu egin baita, eta, une honetan, hurrengo 2021-2024 aldirako plana prestatze-bidean dago.

Horrek berekin dakar hainbat urtetarako ekintza-plan baten buru izateko eta plan horretan parte hartzeko konpromisoa, aintzat hartuta herritarren lehentasunak –gizarte-arazoak eta -beharrak konpontzeko beste modu batzuk ekarriko dituztenak–, eta printzipio hauetan oinarrituta:

- **Gardentasuna:** Administrazioaren egintzen, ebazpenen, prozeduren eta dokumentuen publikitatea errespetatzean eta zaintzean datza, bai eta haien oinarriena ere, eta edozein pertsonari informazio hori eskuratzeko erraztasunak ematean, arauetan ezarritako baliabide formalen bidez eta biztanleria-sektore guztiei ahalik eta irisgarritasun eta zabalkunderik handiena eskaintzen dieten baliabide informalak bidez, beste eskubide batzuk babesteko soilik arrazoitu ahalko diren mugen salbuespenarekin. Halaber, gardentasunak berekin dakar onartzea informazio publikoa berrerabiltzeko moduan eman behar dela, balio publiko handiagoa sortzeko.
- **Kontuak ematea:** gizartearen zerbitzura dauden pertsonak (kargudunek, ordezkariak eta langile publikoak) duten betebeharrak beren erabakiak, esleitutako funtsen erabilera eta beren jarduketetatik lortutako emaitzak jakinarazteko, justifikatzeko, eta erabaki horiek publikoki eta aldizka beren gain hartzeko, efizientzia-, efikazia-, gardentasun- eta legezketasun-irizpideei jarraikiz.
- **Herritarren parte-hartzea:** herritarrek, banaka zein taldeka, gai publikoetan parte-hartze proaktiboa izan dezaten sustatzea.
- **Lankidetzak publiko-pribatua:** onartu behar da balio publikoa sortzea ez dela administrazio publikoaren ondare eskusiboa, eta politikak eta zerbitzuak diseinatzean, ezartzean eta ebaluatzean balio publiko hori eragile publiko eta pribatuen artean sortzea bultzatzen bada, erantzukizunak eta arriskuak partekatuz, konfiantzazko harreman batean, politika eta zerbitzu horien efikazia areagotu egiten dela, eta berrikuntza sustatzen dela egunetik egunera konplexuagoak diren premia eta arazoak sozialei emandako erantzunetan.
- **Integritatea:** mekanismo multzo bat da, bermatzen duena jarduerak funtsezko hiru balio hauetara bideratzen direla: **interes publikoa edo guztien ona** (sektore publikoko administrazioen eta erakundearen jardueraren funtsezko helburua da, eta, horregatik, zaindu eta sustatu egin behar da, eta haren kaltea, galera edo narriadura saihestu); **errespetua eta irekitasuna** (Administrazioarekin harremanetan dauden pertsona guztiak –hornitzaileak, lizitatzailak, zerbitzu-emaitzaileak, kideak, eta bereziki herritarrak eta herritar elkarteak– kontzientzia –iritzia, irizpideak, sinesmenak–, askatasuna eta eskubideak dituzten subjektu gisa tratatzea); **eta efikazia eta emaitza onak** (alegia, administrazio publikoaren jarduerari dagozkion ondasunak eta zerbitzuak ematea arretaz, etengabeko prestakuntzarekin bat, zuhur –baliabideen kudeaketa zuhurra, ez austeritate-politikak–, berrikuntza, jasangarritasuna –pertsonek bizitza jasangarri

egiteko beharrezkoa den guztia egitea–, lidergoa edo konfidentzialtasuna, horiek baitira administrazio on bati dagozkion balioak).

E.2. Zer lorpen erdietsi ditugu orain arte gobernu irekiaren arloan?

2018an egindako diagnostikoak, 2018-2020 [Planean](#) jasota geratu zenak, EAEko erakundeen abiapuntua erakutsi zuen, eta honela laburbil daiteke:

Gure erakundeek Gobernu Irekiko planak garatu zituzten jada, eta 2018an plan horiei esker honako lorpen hauek erdietsi zirela adierazi zen:

- **Gardentasuna areagotzea.** Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasun-atariak osasuntsu zeuden. Besteak beste, Nazioarteko Gardentasuna erakundeak ebaluatu zituen, eta emaitzak bikainak izan ziren, gardentasunaren rankingetan lehenengo tokiak lortu baitziren. Open Data Euskadi atariak datu irekien 4.126 multzo zituen, eta Europako datu irekien lehenengo atari ez britainiarra izan zen, 2010ean sortu zenean. EAEko erakunde guztiek gobernu-programen eta gure aurrekontuen jarraipena egiteko aplikazioak zituzten, baita politika publikoak ebaluatzeko sistemak ere (gobernu-ekintza bideratzeko eta gobernu irekiko estrategiak elikatzeko informazio kuantitatibo eta kualitatibo esanguratsua daukaten behatokiak). Baina irisgarritasunean aurrera egin behar genuen, herritarrek egiten dituzten informazio-eskaerak identifikatu behar genituen –eskaera horiek betetzea herritarrek bizitza publikoan parte hartzeko baliagarria izango zelako–, eta zerbitzu publikoak hobetzen eta balio publiko partekatua sortzen lagunduko liguketan datuak zabaldu behar genituen.
- **Aurrera egitea herritarren parte-hartzean eta lankidetzan publiko-pribatuan,** eta ekimen eta politika publikoei buruzko eztabaida eta proposamenak sortzen laguntzea, parte-hartzeari buruzko arauen eta parte hartzeko prozesuen deialdi anitzen bidez. Hala ere, kalitate demokratikoan aurrera egiteko, beharrezkoa da arlo publikoa kudeatzen duten pertsonen eta herritarren ikastea eta berritzea; izan ere, beharizan eta arazo sozialak gero eta konplexuagoak dira, eta lankidetzako konponbide itundu eta konprometituak behar dira. Gure erakundeek hainbat erronka dituzte esku artean: gugandik hain hurbil ez daudela sentitzen duten eta normalean parte hartzen ez duten pertsonen parte harraraztea; parte-hartze formala eta informala uztartuko dituen eta elkarren osagarri izango diren eredu misto batean aurrera egitea; balio publikoa batera sortzeko kanal eta tresna eraginkorrak garatzea; lankidetzarako, baterako sorkuntzarako, negoziatorako eta akordiorako trebetasunak nagusi izango diren eta inibizioa eta norgehiagoka baztertuko diren inguruneak formalizatzea, eta abar.
- **EAEko administrazioen barneko eta kanpoko prozedurak digitalizatzea;** hala, herritar guztiak jada EAEko administrazioekin harremanetan jar daitezke Internet bidez, zuzenean edo herritarrei arreta emateko langileen bitartez, eta horri esker hurbilagoak, arinagoak eta gardenagoak gara. Dena dela, interesgarria litzateke aurrera egitea zerbitzu integratu eta erakundearteko batean, sarrerako ate hurbila izan dadin, herritar guztientzat irisgarria.
- **Ekinbide publikoari balioa berriro emateko nahiz erakundeen eta beren arduradun publikoen sinesgarritasuna handitzeko lagungarria den eredu baterantz aurrera**

egitea. Erakunde-integritateko mekanismoak eta tresnak hartu ditugu. Mekanismo eta tresna horiek kargu publikoaren kontzeptua zabaltzen dute eta interes orokorra gailentzeko kontrol- eta berme-sistema bat txertatzen dute (kargudun publikoaren jokabide-arauak, kode etikoak, etika publikoa kontrolatzeko organoak, barneko nahiz kanpoko eragileek osatuak...). Baina etengabe eraikitzen ari den prozesu batean sistema osoago eta bateratuagoak garatu nahi ditugu... herritarrentzako bermerako eta arriskuen prebentziorako mekanismoen bidez. Prozesu horretan, gehiago eskatzen digun ekintza oro aberasgarri izango da.

OGP Euskadi 2018-2020 Plana egikaritzeak herritarrekin lankidetzan egin den aurrerapena erakusten du, espazio komuna eta jarraitu beharreko bide partekatua oinarri hartuta, betiere administrazio bakoitzaren autonomia eta autoantolaketaarako ahalmena errespetatuta. Bide partekatu horri esker, honako ildo hauetan aurrera egin ahal izan dugu:

- **Antolamendu-eredua:** Lehen ere esan dugun bezala, sortutako eragile anitzeko foroek (talde sustatzailea, foro erregularra, konpromiso-taldeak eta foro irekia) ongi funtzionatu dute, eta, beraz, eredu horrekin jarraitzea gomendatzen da. Hala ere, egindako [ebaluazio](#) partekatuak hobekuntza-arlo batzuk azaleratu ditu, bigarren plan honetan jorratu behar direnak, esate baterako: talde sustatzaileari lidergo eta ikusgarritasun handiagoa ematea; foro erregularren esparruan, koordinazio eta argitasun handiagoa sustatzea kontzeptu eta prozesu berriak ezartzean; konpromiso-taldeen eginkizunak eta helburuak argitzea, eta haiei erabaki-ahalmen handiagoa ematea; eta foro irekiari dagokionez, bestelako eragileek ordezkartza eta partaidetza handiagoa izatea; hala ere, eragile berriak erakartzeko, hau da oztopoetako bat: aldeztu aurretik prozesua (kontzeptu eta lan-prozesu konplexuak) oso ondo ezagutu gabe, konplexua da sartzea.
- **Kontu-ematea:** Dagoeneko badugu kontuak emateko EAEko eredu bat, 1. [konpromisoan](#) garatua, EAEko erakundeentzako (erkidego-, foru- eta toki-mailakoentzako) agintaldiko konpromisoari buruzko informazioa argitaratzeko oinarritako estandar eta estandar aurreratu gisa. Honako alderdi hauek jasotzen dituen jarraipen-metodo bat du: jarraipen-txostenak, jarraipen-adierazleei buruzko datu-multzoen argitalpena, eta herritarrek ulertzeko moduko betetze-bistaratzeak. Bidea dago egiteke hura orokortzeko, eta auditoretza sozialeko funtzionaltasunei nola ekin aztertu eta garatzeko. Auditoretza soziala baliabide publikoen erabilera eta administrazioan kontu-ematea eta gardentasuna eraikitzeke herritarren parte-hartzean oinarritzen den ikuspegizat eta prozesutzat hartzen da; izan ere, herritarrek eskubidea dute jakiteko –eta jakin nahi dute– Jaurkitzak zer egiten duen, nola egiten duen, eta horrek herritarrengan zer eragin duen, eta eskubidea dute, halaber, balio publikoa sortzen laguntzeko, proposamenak eta ekarpenak eginez.
- **Datu publikoak irekitzea:** Dagoeneko baditugu herritarren interesen azterketa bat (herritarrek, berrerabiltzaileen kolektiboa, unibertsitateetako ikertzaileak), datu publikoak irekitzeari buruzkoa, eta eskariaren prospektiba-metodologia bat; sekulako datu-multzo berri bat (27), dagoeneko normalizatuta eta argitaratuta, bistaratzeak eta erakundearteko zerbitzuak garatzea ahalbidetu duena; eta EAEko erakundeen arteko lan-eredu komun bat. Lan-eredu horri esker datuak irekitzeko, normalizatzeko eta erakundearteko zerbitzuak sortzeko lanetan jarrai daiteke (lan horiek **2. [konpromisoaren](#) esparruan garatzen dira**).

2020an, halaber, ideien eta aplikazioen Open Data [Sarien](#) deialdia egin da, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta hiriburuetak 3 udalek parte hartzen duten lehiaketa irekien bidez, datu irekiak berrerabiltzearen kultura sustatzeko.

- **Berrikuntza herritarren parte-hartzean:** Badugu jada herritarren parte-hartzearen arloko berrikuntzako laborategi-eredu bat (ilab) Euskadirentzat, estatuko eta nazioarteko beste esperientzia batzuen azterketatik abiatuta garatu dena; baditugu oinarriak ilab-aren parte-hartzearen arloko berrikuntza-proiektuak identifikatzeko, esperimendatzeko eta transferitzeko; eta baditugu orientabideak herritarren parte-hartzearen arloko berrikuntzak transferitzeko; horri esker, 4 proiektu pilotu garatu ahal izan dira, transferentzia-produktu banarekin:
 - Aurrekontu parte-hartzaileetarako prozesuak taxutzeko gakoak, EAEko udal-eremuan egindako hainbat prozesuren azterketa oinarri hartuta
 - Ongizatea eta osasuna sortzen duen parte-hartze baterako gida. Gida hori partaidetza-prozesuek ongizatea eta osasuna ekar ditzaketen hipotesi frogatuan oinarritzen da. Hipotesi horren arabera, ongizatea eta osasuna sortzeko, partaidetza-prozesu horiek osasun publikoko nazioarteko erakundeek dagoeneko esperimendatu eta baliozkotu dituzten gako jakin batzuen arabera konfiguratu behar dira.
 - Herritarren parte-hartzeak administrazioaren barne-egituran duen eraginaren azterketa
 - Nola lortu pertsona migratuen parte-hartzea areagotzea

Hori guztia 3. [konpromisoaren](#) esparruan garatu da. Ilab-a ezartzen jarraitu beharko da, bai eta proiektu pilotuetarako deialdiak egiten ere, ekoitzitako berrikuntzen transferentzia-produktuak lortzeko.

Arlo honetan ere aldatu egin da [Elkarlan](#) Sariak baloratzeko modua. Sari hauek jasotzeko, proiektuek osasunaren, ingurumenaren, garapen ekonomikoaren, ikastearen eta kohesio sozialaren jarduera-alorretan eragina izateaz gain, balio publiko partekatua sustatu behar dute gizarteko erronkak eta premiak asetzeko, eta diseinu- eta ezarpen-fasean, pertsona eta kolektiboen ahalduntze-prozesua sustatzeko gaitasuna erakutsi behar dute. Azkenik, irabazi-asmorik gabeko erakundeen gidaritzapean gauzatu behar dira. Aurkeztutako proiektuen balorazioan, herritarren botoa gehitu da. Hala, 2020an 9.240 boto jaso zituzten aurkeztutako 32 proiektuek. Era berean, sarietan berariazko partida ekonomiko bat gehitu da berdinen arteko ikaskuntza eta herritarren proiektuen arteko harremana bultzatzeko aukeratzen diren proiektuen transferentzia sustatze aldera, ilab-aren kontzeptualizazioan definitutako transferentzia-funtzioari jarraikiz.

- **Herritartasun-eskola - Open Eskola:** Dagoeneko badugu herritarrentzako eskola irekiaren eredu egiaztatu bat. Euskadin, topagune eta ikasgune gisa funtzionatuko du, eta haren helburua izango da gai publikoetan aktiboago izatera bultzatzea herritarrek, eta kontu-ematean eta etengabeko hobekuntzan gehiago ahaleginduko den administrazioa bultzatzea. Horretarako, 4. [konpromisoaren](#) esparruan, Open Eskola bat ezartzeko gida bat garatu da. Gida hori beste ingurune batzuetako esperientzien mapaketa batean oinarritzen da, bai eta EAEko zenbait udalerritan egindako saiakuntza batzuetan ere. Haren orokortzea sustatu beharko da, bai eta curriculum-diseinu partekatua garatzera bideratutako koordinazioa ere.

- **Integritateko EAeko sistema:** Dagoeneko baditugu oinarriak EAeko administrazioen integritate-sistema ezartzeko. Horrek gure erakundeen azpiegitura etikoa sendotuko du, integritate-politika bat bultzatuta. Baina politika hori ezin izango da legezketasuna betetzera mugatu, aitzitik, urrats irmoak egin beharko ditu integritate instituzionaleko esparru bat eraikitzeke, eta eraginkorra izan dadin, eta, era berean, kudeaketa publikoan jardunbide egokiak ezarri eta gara daitezen, Administrazioaren errendimendua hobetzeko, eta, hala, herritarrek zerbitzu hobeak jasotzeko. Horretarako, tresna hauek garatu dira 5. [konpromisoaren](#) esparruan:
 - Integritate-sistemen jarraipenerako eta ebaluaziorako tresnen azterketa konparatua
 - Integritatearen eta gobernu onaren EAeko sistema
 - Etika publikoan sentsibilizatzeko programa

Bidea «sareko sistema» hori garatzea da, arauak eta legedia biderkatu beharrik izan gabe, jada ezarrita dauden azpisistemak bultzatu eta garatzeko, eta sinergiak eta elkarren arteko ikaskuntza bultzatzeko, Euskadin kudeaketa publikoaren eta gobernantzaren kultura etiko bat lor dezagun.

E.3. Gobernu irekiaren arloko zer erronkari edo aukera-esparruri erantzun nahi diogu?

Aurreko atalean, gobernu irekiaren arloko aurrerapen-eremuak identifikatu dira, aurreko ekintza-planeko konpromisoekin lotutakoak, baina 2021-2024 ekintza-plan berriak herritarren [lehenetasunetan](#) oinarritutako ekintza-ildo berriak ireki nahi ditu. Lehenetasun horiek plana batera diseinatzeko 2020ko uztailean zabaldu zen formulario irekiaren bidez jaso ziren, eta jarraian laburbiltzen dira, handienetik txikienera ordenatuta, haiek lehenetsi zituzten pertsonen ehunekoaren arabera:

1. % 45,71k 1. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*COVID-19aren ondorio sozialak / ekonomikoak / hezkuntzakoak / gizarteratzea*), eta, besteak beste, COVID-19aren inpaktua eta susperraldia aztertzekeo jarduerak proposatu zituzten, bai eta pandemia-egoeran kolektibo zaurgarriari laguntzeko neurriak ere.
2. % 35,24k 5. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Administrazioen gardentasuna eta kontu-ematea beren jardueretan eta erabakietan*), eta, besteak beste, politika publikoak diseinatzeko, errealitatearen analisi-indize berriak sartzearrekin lotutako jarduerak proposatu zituzten.
3. % 34,29k 10. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Espazio zibikoak eta herritarren ahalduntzea*), eta, besteak beste, pertsonekin egituratuko diren prozesuak eta plataformak sortzeko jarduerak proposatu zituzten, bai eta herritarren inplikazioa zailtzen duten gakoak aztertzea eta horiek konpontzeko neurri praktikoak bilatzea ere.
4. % 32,38k 2. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten, (*Generoberdintasuna, kontziliazioa, soldata-arrakala eta abar*) eta, besteak beste, laguntza-sareen sustapenarekin, ahalduntzearekin eta profesionalen koordinazioarekin lotutako jarduerak proposatu zituzten.
5. % 30,48k 15. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Ekonomia zirkularra eta jasangarritasuna*), eta, besteak beste, harreman ekonomiko berrietarako trantsizioarekin eta pertsonen eta planetaren zerbitzura dagoen eredu sozial eta ekonomiko batekin lotutako jarduerak proposatu zituzten.

6. % 28,57k 6. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea*).
7. % 27,62k 11. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Komunitatea sortzea, sarean lan egitea, etab.*).
8. % 25,71k 12. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Hezkuntza: hezkuntza-komunitatearen inplikazioa eta abar*), eta, besteak beste, hezkuntza-sisteman desberdintasunaren eta bereizketaren behatoki bat sustatzearekin lotutako jarduerak proposatu zituzten.
9. % 24,76k 13. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Osasuna: kontzientziazioa, osasunari buruzko datuak*).
10. % 23,81k 14. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Energia: gobernantza, energia-politikan parte hartzea...*).
11. % 21,90k 7. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Belaunaldien arteko arrakala, gazteen parte-hartzea, etab.*) eta, besteak beste, zahartze aktiboari, adinkeriari eta belaunaldi arteko truke-plataformei buruzko jarduerak proposatu zituzten.
12. % 20,95k 16. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Aurrekontu parte-hartzaileak, etab.*).
13. % 16,19k 9. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Informazioaren segurtasuna sare sozialetan, pribatutasuna eta abar*), eta, besteak beste, eskubide digitalei buruzko jarduerak proposatu zituzten.
14. % 9,52k 4. eremuarekin lotutako jarduera-ildoak lehenetsi zituzten (*Memoria Historikoa, memoria-politikan parte hartzea*).
15. Beste eremu batzuetan, honako hauekin lotutako ekarpenak egin ziren: paisaiaren kudeaketa, baterako etxebizitza garatzeko administrazio-esparru bat sortzea, kulturaren kudeaketa, segurtasun publikoa, natura eta hiri-zientzia, biodibertsitatea eta natura-ingurunea.

Lehentasan horiei dagokienez, honako hauek aztertu ziren: haien bideragarritasuna, irismena eta eragina izateko aukera, erakundeen prestasuna haiek gidatzeko, eta zer transferentzia-gaitasun duten, eta zein lotura erakunde-maila desberdinek eta eragile sektorial publikoek eta herritarrek parte hartzen duten politika publikoekin. Azterketa horren ondoren, 5 jarduera-ildo posible sortu ziren, eta Foro Erregularrak aztertu, hots, EAEko administrazio publikoen eta gizarte zibilaren gehiengoaren ordekariz osatutako foroak. Ildo bakoitzerako lidergo instituzionala identifikatu ondoren, herritarrek, adituek eta erakundeek iritzia emateko taldeetan, ildo horien irismena, esperotako emaitzak eta exekuzio-mugarriak zehaztu ziren. Konpromiso bakoitzaren baterako diseinu hori berriz kontrastatu zen Foro erregularrean (https://www.ogp.euskadi.eus/contenidos/noticia/ogp_2020_07_13_nuevoplan/es_def/adjuntos/01_03_2021_Acta_ForoRegular.pdf) eta, ondoren, 2021eko uztailean egindako foro irekian.

Hauek dira identifikatu ziren 5 ildoak:

1.- **COVID-19 datuen behatokia hirian, eta zerbitzuak herritarren beharretara egokitzea.** Pandemiak eta pandemiaren ondorioek zeharo aldatu dute herritarren errealitatea; beraz, beharrezkoa da erakundeen lehentasunen agenda eta gobernu-planak egokitzea. Proiektu honen bidez, lehenik eta behin, ikusmira zabala lortzeko moduko adierazle batzuk definitu nahi dira, populazioen eta herritarren egoera eta bilakaera ezagutu eta monitorizatzeko (jarduera ekonomikoa eta soziala, hauskortasun-egoerak, jendarte jakin batzuen egoerak eta abar), eta, aldi berean, egoera arintzera bideratuta, esparru batean zein bestean hartzen ari diren neurrien

ondorioak egiaztatzeko. Orobat, erakundeek, zerbitzuak egoera berrira egokitzeaz batera, gogoeta egin, eta lehentasunen agenda birplanteatzea proposatzen du: betiere bermatu behar diren funtsezko zerbitzuak zehaztea, eta horiek indartzea eta lehenestea Jaurlaritzak lehenago aurreikusitako jarduketan aurrean; herritarren arreta eta herritarra/erakundea harremana birpentsatzea; zerbitzuak emateko paradigma berria, etab. Erronka da benetan zer gertatzen ari den ezagutzea, gure zerbitzuak gaur egungo errealitatera egokitzea, eta bizitakoak emandako irakaspenei eta paradigma-aldaketei buruz gogoeta egitea eta haiei erantzutea.

Jarduera-ildo honek 1. eremuari erantzuten dio. Eremu hori lehen lekuan lehenetsi zuten formulario irekiari erantzun zioten pertsonen % 45,71k.

2.- Gardentasuna eta kontuak ematea (auditoretza soziala, aurrekontu-gardentasuna...)

Herritarren kritika bat izan ohi da aurrekontu publikoen kudeaketa ulertzeko zailtasuna, eta zailtasun horren ondorioz, askotan, ezjakintasunetik abiatuta, aurrekontuen kudeaketa bera zalantzan jartzen da. Bizi duguna bezalako krisi-egoeretan (finantza-krisia, COVID-19 krisia eta beste), ondorio hori larriagotu egiten da eta herritarren eta erakunde publikoen artean mesfidantza areagotu, urrundu egiten baitira. Aurrekontuak argitaratzeko eta kontuak azaltzeko orduan EAEko erakunde publikoek legezko estandar ondo egonkortuak darabiltzate, baina, hala ere, herritar gehienek ez dituzte ondo ulertzen. EAEko erakundeen egiturari, gainera, administrazio publikoak maila bat baino gehiagotan banaturik daude, badira eskumen partekatutako eta badira eskuordetutako, eta herritarrentzat are eta gaitzagoa da ulertzea nola kudeatzen diren baliabide publikoak, alegia, kobratzen zaizkien zergetatik finantzatzen eta zuzen-zuzenean eragiten dieten horiek. Erronka, beraz, izango da aurrekontuen arloan gardentasunerako eta kontuak emateko tresna sortzea, herritarrek aurrekontu publikoak uler ditzaten eta, ondorioz, kudeaketa publikoa egoki baloratu eta politika publikoetan modu aktiboagoan parte hartu ahal izan dezaten. Hori da gure auditoretza sozialeko ikuspegia.

Jarduketa-ildo honek 5. eremuari erantzuten dio. Eremu hori bigarren lekuan lehenetsi zuten formulario irekiari erantzun zioten pertsonen % 35,24k.

3.- Open Eskolako edukiak garatzea (integritatean hezteko, herritarren ahalduntzea, eten digitala eta herritartasun aktiboa)

Herritarrekin garatutako partaidetza-prozesuan jasotako eskaerei erantzuteko modu bat –datozen urteetan aurrera eraman behar ditugun lan-konpromisoak identifikatzera bideratutako eskaerak dira– izan daiteke OPEN ESKOLA erabiltzea eta optimizatzea. Eskola ireki horren bidez, mundu guztian bizi dugun pandemiaren ondorioz sortu zaizkigun erronka berri asko landu ahal izango ditugu. OPEN ESKOLARI esker, erakundeek zuzeneko interakzioa izan dezakegu herritarrekin, eta behar duten guztia eskaintzen saia gaitzke,

- hartara desberdintasun digitalak gainditu ahal izateko (eten digitala, alfabetatze digitala),
- herritarren ahalduntzea lantzeko,
- espazio bat eskaintzeko, non herritarrak etika publikoaren arloan kontzientziatzen eta hezten diren,
- eta elkarlaneko gobernantzaren ereduak eskatzen duen erantzukidetasuna bere gain hartzeko eta elkarrekin parte hartzeko prest dagoen komunitate aktibo eta ireki bateko kide izatea lor

dezagun. Eredu inklusiboa izan behar du, herritar guztien presentzia eta parte-hartzea bermatuko duena, eta Euskadiko edozein udalerrri edo erakundetan aplikatzeko modukoa. Erronka da OPEN ESKOLAREN barruan herritarren prestakuntza eta gaikuntza erraztu eta sustatuko duten tresnak, mekanismoak eta ereduak eskaintzea, hartara, herritarrek ezagutza eta trebetasun nahikoa izan dezaten Gobernantza Publikoan parte hartzeko.

Jarduera-ildo honek 10. eremuari erantzuten dio. Eremu hori hirugarren lekuan lehenetsi zuten formulario irekiari erantzun zioten pertsonen % 34,29k.

4.- Legegintza, araugintza edo erregelamendugintzako herri-ekimenak jasotzeko tresna bat garatzea, EAEko erakunde guztiek (Eusko Legebiltzarrak, Batzar Nagusiek edo erkidego-, foru- edo toki-erakundeek) erabili ahal izango dutena. Egia da dagokion araudian zehatz-mehatz jasota dagoela zer prozesu bete behar den legegintza, araugintza edo erregelamendugintzako herri-ekimenak sustatzeko, baina erregistratzen diren proposamenak hutsaren hurrenak dira, herritarrek oro har ez dutelako ezagutzen eta zaila delako prozedura bakoitzak eskatzen dituen atxikimenduak modu ziurtatua eta seguruan biltzea. Aurkezten diren ekimen asko bertan behera geratzen dira atxikipenak jasotzeko epea amaitu egiten delako, eta aurrera egiten dutenak ez datoz herritar talde anonimoetatik. Bat eta beste, azkenean, herri-ekimenen helburua lausoturik geratzen da neurri batean. Era berean, atxikipenak baliozkoak direla ziurtatzeko lana konplexua da, eta, hura errazteko, administrazioarteko elkarreragingarritasuna behar da. Kontua da tresna bat sortzea herritar taldeek erabili ahal izango dutena Euskadirako edozein legegintza, araugintza edo erregelamendugintzako ekimen sustatzeko, eta bide hauek zabalduko dituen:

- Prozesuari publizitatea eta gardentasuna ematea (webgunean argitara ematea prozesuari buruzko dokumentazioa: batzorde sustatzailearen osaera; erregulazio-proposamena egiten hasteko data; testu artikuluduna; laguntza- edo finantzaketa-iturriak, halakorik baldin badago; izapidetzea onartzeko edo ez onartzeko ebazpena; errekurtsio eta ebazpen posibleak; atxikimenduak jasotzen hasteko jakinarazpena; jasotako atxikimendu kopurua; atxikimenduak ziurtatzeko ardura duten fede-emaileak; baliozko atxikimenduen ziurtagiria; izapidetzea abiarazi izanaren jakinarazpena, Legebiltzarreko edo batzar nagusietarako estekaren bidez).
- Atxikipenak elektronikoki eta modu seguruan biltzea, egiaztatze moduan, arbuiatu ezin izateko moduan eta ikuskatzeko moduan (beste ezertarako erabili ezin direla, eta ezin direla suntsitu ez aldatu, ez inon zabaltzea baimenik gabe).
- Atxikimenduak egiaztatzea eta ziurtatzea, dauden elkarreragingarritasun-sistemak erabiliz (NAN, udal-errolda...). Tresna Eusko Jaurlaritzaren plataforman egongo da, edozein EAEko administrazioetatik eskuragarri, eta software aske gisa eskainiko da, euskarri tekniko bat lagun, nahi duten herritar sustatzaileek erraz instalatu dezaten kanpoan.

Jarduera-ildo honek 10. eremuari erantzuten dio. Eremu hori hirugarren lekuan lehenetsi zuten formulario irekiari erantzun zioten pertsonen % 34,29k.

5.- Online zerbitzu bat eta bulego pilotu erdi-presentzialak, gobernu irekiaren parametroetatik adinekoentzat diseinatzen diren bizi-proiektuetan informazioa, orientazioa, bitartekaritza eta laguntza emateko. Euskadi gizarte zahartua izateko bidean dago. Proiektu honen helburua da 65 urtetik gorako edo jubilaziotik gertu dauden pertsonen informazioa, orientazioa eta

bitartekaritza pertsonalizatuak ematea, jubilatutako hurrean direnetik bizitzaren amaierara arte izango bide dituzten bizi-proiektuei buruzko hainbat gairi buruz, bizitza betea izan dezaten eta gizartean parte hartu ahal izan dezaten. Hau da, bizi-zikloaren fase ikaragarri zabal horretan, erabakiak hartzen lagundu nahi zaie, bakoitzak bereak, informaturik eta jakinaren gainean, etapaz etapa nola bizi nahi duten hauta dezaten. Eta, horretarako, laguntza-baliabideak sustatu nahi dira, belaunaldi berrien profilerak, itxaropenetara eta oinarritzko balioetara egokituta, arreta espezializatua, pertsonalizatua eta integrala eskainiz, gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin bat etorriz (interes orokorreko gizarte-zerbitzuak: pertsonentzako zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak...). Alegia, gobernu irekiaren printzipioak politika zehatz batean aplikatu nahi dira. Hau da, kolektiboari arreta emateko 3 bulego (presentzial/erdi-presentzial) diseinatu eta ezarri nahi dira, bai eta online arreta-zerbitzu bat ere. Horretarako, alde aurretik, eta partaidetza- eta kodiseinu-prozesu baten bidez, komunitatearekin zehatu nahi dira zer adostasun behar diren eta zer esparru diren lehenetsizko, zerbitzu integrala emateko eta, beraz, sistema bakoitzaren baliabide espezifikotatik berezia (osasuna, gizarte-zerbitzuak, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntza), baina haiekin konektatua.

Jarduera-ildo honek 7. eremuari erantzuten dio. Eremu hori 11. lekuan lehenetsi zuten, formulario irekiari erantzun zioten pertsonen % 21,90ek.

E.4. Zein dira epe ertainean lortu nahi ditugun gobernu irekiko helburuak?

2021-2024 Plana osatzen duten 5 konpromisoak bat datoz epe ertainean lortu beharreko gobernu irekiko helburu hauekin:

1. COVID-19ak hirian sortutako inpaktuaren inguruko mekanismo egokiak, objektiboak eta neurgarriak ezartzea, eta udal-zerbitzuak egoera berri horretara (pandemiara eta pandemia ostera) nola egokitzen diren ikustea eta egokitzapen hori gauzatzea; horretarako, larrialdi-egoera berrietan eraginkortasun handiagoz erantzuteko modeloak egingo dira, gardentasunaren eta kontu-ematearen filosofiatik abiatuta.
2. Herritarrak ahalduz, tresna irisgarri baten bidez aurrekontu publikoen xedea uler dezaten eta, hala, kudeaketa publikoa behar bezala balora dezaten eta politika publikoetan modu aktiboagoan parte har dezaten.
3. Herritarrek GOBERNANTZA PUBLIKOAREN eredu berria berme osoz parte hartzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak sortzea. Eredu horretan, arduradun publikoek eta herritarrek eraginkortasunez lagundu ahal izango dute balio publikoa sortzen.
4. Herritarrak ahalduz, plataforma irisgarri baten bidez, arauak proposa ahal ditzaten edozein erakunde-mailatan, gizarte-kolektiboek dituzten premiei erantzuteko. Horrela, eraginkortasun handiagoz bideratuko da botere legegile edo betearazleek duten erregelamendu-ahala.
5. Adineko pertsonen erantzuna ematea online arretan eta bulego erdi-presentzialetan oinarritutako eredu ireki batetik, beren bizi-proiektuak bultzatu dituzten, beren itxaropen, balioen eta interesen arabera, bai banaka, bai familian, bai taldean. Horretarako, beren gaitasunak eta talentua garatzea ahalbidetuko dieten proiektuak eta ekimenak aktibatuko dira, guztien onerako izango direnak (boluntariora, proiektu autokudeatuak, belaunaldiartekoak) eta bulegoak jartzen diren komunitatean eragina izango dutenak.

E.5. Nola laguntzen du ekintza-planak Gobernu Irekiaren Ikuspegi Estrategikoa lortzen?

Ekintza-plan horrek Euskadiko gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoari laguntzen dio; izan ere, tresna, eredu eta orientabide komunak garatzen ditu maila eta dimentsio guztietako EAEko administrazioetarako (erkidegokoetarako, foru-mailakoetarako edo tokikoetarako), jarduera publikoaren gardentasuna eta kontu-ematea, herritarren ahalduntzea, haren parte-hartzea bizitza publikoan, lankidetzatza publiko-pribatua eta erakundearen integritatea sustatzeko, eta horrek guztiak ekintza publikoa eta erakunde publikoen eta haien arduradunen sinesgarritasuna birbaloratzen laguntzen du.

E.6. Gobernu irekiaren ikuspegi estrategikoa nola laguntzen du egungo administrazioaren politikaren helburu orokorrak lortzen?

XII. legegintzaldiko gobernu-programak 3 jarduera-printzipio nagusi jasotzen ditu

- **Osasuna bermatzea**, duela hamarkada bat baino gehiago hasitako paradigma-aldaketan sakonduz, osasungintza eta gizartea uztartuz, eta osasunaren ikuspegia politika guztietan txertatuz.
- **Ekonomia eta enplegua suspertzea**. COVID-19aren pandemiak eragina izan du EAEko ekonomian eta enpleguan, eta fenomeno horren aurretiko mailak berreskuratu beharra dago, baina erronka eta premia berriei egokituta. Gobernu Programak helburu partekatu hauek finkatzen ditu: enpleguari eustea; ezegonkortasunaren eta behin-behinekotasunaren aurka borroka egitea generoaren ikuspuntutik; eta ekonomia suspertzea, hazkundearen bidera itzultzeko eta gure langabezia-tasa berriz ere % 10etik behera kokatzeko.
- **Inor atzean ez uztea**. Pobrezia-, bazterketa- eta arrisku-egoerak areagotu egin dira COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioz, eta, aldi berean, murriztu egin dira eskura dauden baliabide publikoak. Egoera konplexua denez, erakunde publikoek ahalegina egin behar dute inor atzean ez uzteko eta gizartea kohesionatuta mantentzeko; ahalegin hori da herrialdeak egin dezakeen inbertsiorik onena.

Halaber, foru-aldundien gobernu-programak eta Bilboko, Gasteizko eta Donostiako udalen agintaldi-planak bat datoz jarduera-printzipio horiekin, eta honako hauek dira haien jarduera-ardatz nagusiak: enplegua eta jarduera ekonomikoa; pertsonak eta aukera-berdintasuna; mugikortasuna eta jasangarritasuna; eta administrazio moderno eta arduratsuak lortzea.

Euskadiko administrazio-maila guztiak argi dute helburu horiek lortzeko ezinbestekoa dela autogobernu gehiago eta hobe izatea eta **kudeaketa publiko gardena eta arduratsua egitea, eta, horretarako, konpromiso hauek hartzen dituzte:**

- Aurrerapausoak ematea bikoiztasunak saihesten dituen administrazio hurbilagoa, errazagoa eta efizienteagoa lortzeko.
- Administrazio irekiagoa eta gardenagoa sustatzea, kontuak denbora errealean ematen dituen, honelako ekimenekin:
 - Gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Legea sustatzea, foru-aldundiek emandako urratsak sendotuz, herritarren aurrean administrazioaren gardentasuna bermatu dadin, gai publikoetan herritarren parte-hartzea sustatu dadin, eta gobernu-

- programak betetzeko gauzatutako ekintzei eta ekimenei buruzko kontuak denbora errealean ematea erraztu dadin.
- Gobernu irekiaren eta nazioarteko aitopenen estrategia bultzatzea. Lankidetzan aritzea erreferentziako nazioarteko erakundearekin, alegia, Gobernu Irekirako Aliantzarekin (OGP), gobernu irekiagoak sustatzeko mekanismoak garatu eta ebaluatzeko. Arduratsuak eta herritarrekiko sentikorrak.
 - Herritarren parte-hartzea eta haien iritzien entzute aktiboa areagotzea, eta adierazleen sistema birdiseinatzea, kudeaketa publikoa denbora errealean jakinarazteko eta ebaluatzeko etengabeko prozesu batean.
 - Administrazio berritua eta digitala sustatzea, giza baliabide finkatu eta trebatuekin.
 - Baliabide publikoak arduraz kudeatzea.

F. LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA TOKIKO GOBERNU IREKIAREN IKUSPEGI ESTRATEGIKOAN ETA OGP-REN EKINTZA-PLANEAN

F.1. Zein dira OGP Euskadiren ekintza-plana ezartzeko ardura duten erakundeak?

Eusko Jurlaritzia

Arabako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Vitoria-Gasteizko Udala

Bilboko Udala

Donostiako Udala

Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia

F.2. Zer akordio instituzional daude erakundeen eta gobernu-sailen arteko koordinaziorako, OGP Euskadiren ekintza-plana ezar dadin?

Euskadiko Lehendakariak, 2018an, Euskadiren hautagaitza OGPren aurrean aurkezteko bidalitako [gutunean](#) EAEko 7 administrazioen eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentziaren erakundearteko apustua jasotzen da. Apustu hori planak prestatu, gauzatu eta ebaluatzeko ardura duen talde sustatzailearen lankidetzan lanean hezurramitu da.

Aldeen ekarpenak zehaztuko dituen lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko aukera aztertzen ari dira, nahiz eta, orain arte, lana egiteko modua adostasunean eta oro har onartutako banaketetan oinarritu den.

F.3. Zer espazio mota erabili edo sortu dira gobernuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzak sustatzeko, ekintza-plana batera sortu eta ezartze aldera?

Lehen aipatu bezala, plan hau batera diseinatzeko eta gauzatzeko, 2018-2020 Planean baliatutako espazio berberak erabiliko dira; izan ere, ebaluazioan, nota ona jaso zuten, bai esleitutako funtzioei dagokienez, bai horien betetze-mailari dagokionez. Honako hauek dira espazio horiek:

- **Talde Sustatzailea:** OGP Euskadiren bultzatzailea da, eta, besteak beste, honako hauek zehazteaz arduratzen da: hedapen- eta komunikazio-plana, antolaketa-eredua, ekintza-plana egiteko prozesua, ekintza-plana ezartzeko bitartekoak eta emaitzen autoebaluazioa. EAEko 7 administrazioek osatzen dute (Eusko Jaurjaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Gasteizko, Bilboko eta Donostiako udalak) eta Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzia lankidetzak publiko pribatuko elkarteak.
- **Foro Erregularra:** eztabaidarako eta proposamenerako organoa da, planaren ezarpena monitorizatzen du, autoebaluazioari buruzko erabakiak hartu, eta zuzentzeko eta hobetzeko proposamenak egiten ditu. Foro erregularrak idazkaritza tekniko bat dauka. Honako hauek osatuko dute: talde sustatzaileak OGPrean aurrean izendatzen duen erakundearen teknikari arduradunak eta Innobasque proiektuaren arduradunak – hautagaitza sustatzen duen gizarte-eragilea—. Bi pertsona horiek bitartekari gisa jarduten dute Foru Erregularreko kideekin, baina horrez gain lan-saioretako idazkariak eta lan teknikoaren eta dokumentuen kudeaketaren koordinatzaileak ere izango dira. Foro Erregularra 10 herritarrek (antolatuta egon zein ez) eta EAEko administrazioetako 7 kidek osatzen dute.
- **Foro Irekia:** kontsultarako, kontrasterako eta proposamenerako organo birtual eta presentziala da. Eztabaida-ekitaldietara gonbidatzen dute eta planaren prestaketa, jarraipen eta ebaluaziorako deialdia jasotzen du, horretarako sortutako OGP Euskadi web-plataformaren eta harremanetarako beste kanal batzuen bidez, kontsulta ahalik eta gehien zabaltzeko.
- **Konpromisoen arabeko taldeak:** konpromiso bakoitza inplementatzeko sortutako lantalde irekiak dira. Beren jardueraren kontu ematen dute eta, lankidetzak publiko-pribatuaren bitartez, konpromisoan jasotako mugarrietara iristen laguntzen dute. Taldekideen artean daude herritar antolatuak eta antolatu gabeak, konpromisoa betetzean zerbitzu-hornitzaile gisa jardun ezin duten ikuspegi adituko pertsonak, eta erakunde-maila desberdinetako ordezkariak. Herritarren, adituen eta administrazioaren ikuspegiak batzea da helburua, politika publiko erkidearen ikuspegia eratzeko.

Horrez gain, espazio birtualak erabili dira, hala nola

- OGP Euskadiren webgunea
 - <https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/-/albisteak/2020/ogp-euskadiren-2021-2023-plan-berria/>
 - <https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/-/albisteak/2021/ogp-euskadiren-2021-2024-plan-berriaren-1-konpromisoan-parte-hartzeko-gonbidapena/>

- <https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/-/albistea/2021/ogpeuskadiren-2021-2024-plan-berriaren-2-konpromisoan-parte-hartzeko-gonbidapena/>
- https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/contenidos/noticia/ogp_2021_06_14_invitacion_c3/eu_def/index.shtml
- <https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/-/albistea/2021/euskadiko-ogpren-2021-2024-planeko-4-konpromisoan-parte-hartzeko-gonbidapena/>
- <https://www.ogp.euskadi.eus/berritasuna/-/albistea/2021/ogp-euskadiren-2021-2024-plan-berriaren-5-konpromisoan-parte-hartzeko-gonbidapena/>
- Irekia plataforma, Euskadiko Gobernu Irekia garatzeko enbrioia dena. Gardentasuna, partaidetza eta lankidetzeta lortzeko tresna bat da, gobernantza oneko jardunbide bat. Herritarrek parte hartzeko leiho irekia dela esatea atsegin dugu.
 - <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/debates/1276-ogp-euskadi-2021-2024-ekintza-plana-elkarrekin-sortzea?stage=presentation>
- Talde sustatzaile EAEko 7 administrazioen webguneak eta Foro Erregularrean parte hartzen duten gizarte-erakundeen webguneak eta sare sozialak

F.4. Zer neurri hartu ziren espazio horietan partaide askotarikotasuna bermatzeko?

Ahalik eta irekiera handiena bermatzeko, hedapen zabala egin zen erakundeek herritarrekin elkarrekitzeko dituzten plataformen eta OGP Euskadiren [webgunearen](#) bidez, eta hainbat interes ordezkatzen dituzten gizarte-erakundeek zuzendutako gonbidapenaren bidez. Parte hartzen duten erakundeen datu-baseak erabili dira. Laburpen gisa, honako hauek:

- Eusko Jaurlaritzak sustatutako Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria egiten parte hartu zuten 969 lagun
- Balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren Elkarlan sarietan parte hartu zuten 124 erakunde
- Innobasque-Berrikuntzaren Euskal Agentzian parte hartzen duten edo agentzia horrekin elkarlanean diharduten 167 erakunde
- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Sareen Sareko 16 kide
- 64 gazte-elkarte.
- Bilboko Udalaren partaidetza-erakundeen erregistroan izena emandako 1.399 erakunde
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko 56 erakunde
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan diharduten 92 erakunde
- Donostiako Udalarekin lankidetzan diharduten 267 erakunde
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan diharduten 2.881 erakunde

F.5. Nork hartu zuen parte espazio horietan?

Proposamenak jasotzeko formulario irekia egiten 175 pertsonak parte hartu zuten. Beren profila identifikatu zuten pertsonen artean:

- % 41 banakako herritarrak izan ziren
- % 27 gobernu irekian edo proposatzen zuten ekimenaren edukian adituak diren pertsonak
- % 23 gizarte- edo herritar-elkarteak
- % 7 administrazio publiko bateko kideak
- % 2 enpresak

Irismena, esperotako emaitzak eta exekuzio-mugarriak eta exekuzio-mugarriak zehazteko fasean, herritarrek, adituek eta erakundeek iritzia emateko taldeek parte hartu zuten. Horietako bakoitzaren identifikazio zehatza konpromiso bakoitzaren fitxan agertzen da, baina profilaren arabera, honako hauek parte hartu zutela esan dezakegu:

- 1. konpromisoan
 - Baterako diseinuaren fasean herritarrekin lankidetzan diharduten Donostiako Udaleko sail hauek hartu zuten parte: Gizarte Ekintza, Euskara, Hilerriak, Hezkuntza eta Gizarte Sustapena, Donostia Kultura eta Donostia Kirola. Musika eta Dantza Eskola, Etxegintza, Sustapen Elkartea, Osasun Publikoa, Ingurumena, Donostia Turismoa, Herritarrentzako Arreta Zerbitzua eta Lagunkoia programa.
 - Zehaztu dena erkatzeko, parte-hartzea garatzeko eta, jarraipena eta ebaluazioa egiteko,- adituek, herritarrek eta erakundeek parte hartuko dute, konpromiso-taldea hasierako fasean eratuta.
- 2. konpromisoan
 - Foru- eta toki-erakundeetako 6 pertsonak eta herritarren erakundeetako 2 pertsonak parte hartu dute baterako diseinuaren fasean.
 - Zehaztu dena erkatzeko, parte-hartzea garatzeko eta, jarraipena eta ebaluazioa egiteko,- adituek, herritarrek eta erakundeek parte hartuko dute, konpromiso-taldea amaierako fasean eratuta.
- 3. konpromisoan
 - Zehaztu dena erkatzeko, parte-hartzea garatzeko eta, jarraipena eta ebaluazioa egiteko,- adituek, herritarrek eta erakundeek parte hartuko dute, konpromiso-taldea hasierako fasean eratuta.
- 4. konpromisoan
 - Batera diseinatzeko fasean parte hartu zuten
 - Gizarte-elkarteetako edo irabazi-asmorik gabeko elkarteetako 12 pertsona, edo herritar adituak.
 - Hiru erakunde-mailetako 9 pertsona: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak
 - Zehaztu dena erkatzeko, parte-hartzea garatzeko eta, jarraipena eta ebaluazioa egiteko,- adituek, herritarrek eta erakundeek parte hartuko dute, konpromiso-taldea hasierako fasean eratuta. Talde horren muina 9 pertsonaz egongo da osatuta.
- 5. konpromisoan
 - Euskadiko adinekoen 8 erakunde edo gizarte-elkarteetako 9 pertsonak baterako diseinuaren fasean parte hartu zuten, eta garapen partaidetuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartuko dute. Erakunde edo elkarte horiek, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin batera, «Euskadiko Adinekoen Batzordea» osatzen dute formalki (batzorde horren helburua da Eusko Jaurlaritzaren eskumen-eremuan adinekoei zuzendutako politikak orientatzea, diseinatzea, planifikatzea eta/edo ebaluatzea, bai eta herritarrekin ekimen bateratuak edo lankidetzakoak sustatzea ere). Pertsona horiek herritarren eta adituen ikuspegia ematen dute.
 - Zehaztu dena erkatzen eta aberasten honako hauek hartuko dute parte: berrikuntza publikoaren arloko aditu batek, eta hiru foru-aldundietako (Araba,

Gipuzkoa eta Bizkaia), EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko, Bilboko Udaleko eta zahartzearen arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako 6 pertsonak.

Foro Erregularrean honako hauek parte hartu dute:

- 10 gizarte-erakundek edo herritarrek
- EAEko 7 erakundek (Eusko Jaurlaritzak, 3 foru-aldundiek eta hiriburuetako 3 udalek)

Uztailaren 12ko foro irekian honako hauek parte hartu dute:

33 pertsona aurrez aurre (% 61 herritar antolatuetatik eta antolatu gabeetatik, eta % 39 Euskadiko autonomia-, foru- eta toki-administrazioetatik), 51 pertsona online saioaren bidez eta 167 irekia plataformaren bidez.

Bideo honen bidez ikus daiteke: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/70705-foro-abierto-cierra-proceso-codiseno-del-plan-2021-2024-ogp-euskadi>

F.6. Zenbat taldek parte hartu zuten espazio horietan?

Zaila da kuantifikazio hori egitea; formulario irekiaren fasea alde batera utzi eta soilik kontuan hartzen badira Talde Sustatzailea, Foro Erregularra, konpromisoaren araberrako talde parte-hartzaileak eta foro irekia –bakar bat gisa–, guztira, 10 talde.

F.7. Zenbat bilera egin ziren batera sortzeko prozesuaren barruan?

Formularioa abiarazteko foro irekia, 2020ko uztailaren 22koa eta 23koa, bidea eman zuena 175 formulario bete biltzeko, eta 2021eko uztailaren 12koa, OGP Euskadi 2021-2024 Planaren ikuspegi estrategikoa eta konpromisoak kontrastatzekoa.

Talde Sustatzailearen 2 bilera (2021eko otsailaren 16an eta 2021eko ekainaren 23an)

Foro Erregularraren 2 bilera (2021eko martxoaren 1ean eta 2021eko ekainaren 30ean)

1. konpromisoko talde parte-hartzailearen 5 bilera (2021/02/9, 2021/02/23, 2021/03/9, 2021/03/23 eta 2021/06/7)

2. konpromisoko talde parte-hartzailearen bilera 1 (2021eko uztailaren 9a)

4. konpromisoko talde parte-hartzailearen bilera 1 (2021eko ekainaren 17a)

5. konpromisoko talde parte-hartzailearen bilera 1 (2021eko maiatzaren 19a)

Guztira: 14 bilera.

F.8. Ekintza-planaren ezarpenean, nola jarraituko dute lankidetzan gobernuko eta gobernuz kanpoko eragileek?

Arestian deskribatu dugun moduan, gure antolaketa-ereduaren bidez: Talde Sustatzailea, Foro Erregularra, Konpromiso Taldeak eta Foro Irekia, eta OGP Euskadi plataformaren bidez <https://www.ogp.euskadi.eus/inicio/>.

G. OGP EKINTZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

G.1. Ebaluazio independenteko zein erakunde arduratuko da planaren jarraipena egiteaz?

Euskal Herriko Unibertsitatea, GIZARTE-ZIENTZIEN ETA KOMUNIKAZIOAREN FAKULTATEA,
Politika eta Administrazio Zientzia Saila.

Zuzendaria: Jaione Mondragón

<https://www.ehu.eus/documents/1569916/4114190/CURRICULUM+JAIONE+MONDRAGON.pdf/c38fd5e6-d86f-4ff1-bdf7-2d85a39138d1?t=1434449769000>

G.2. Zer jarduera mota ezarri dira konpromisoen ezarpenean izandako aurrerapenak eragileekin eztabaidatzeko?

Foro Erregularreko kideek bileren aurretik jasotzen dute dokumentazioa, interes-taldeek beren aldetik azertu ahal dezaten (sozietate zibila/administrazioak), eta beren barnean eztabaidatutako proposamenak aurkez ditzaten.

Konpromiso bakoitzaren mugarriei buruzko informazio guztia OGP Euskadiren webgunean argitaratzen da, eta aurrerapen guztiak agerian uzten dira dokumentuen, argazkien, bideoen, akten zirriborroen eta gai-zerrenden bidez.

Foro Irekietako dinamikei dagokienez, talde txikietan egiten da lan, baterako sortze- eta partaidetza-teknikak erabilia, nahiz eta hori erabat baldintzatu duten COVID-19agatik ezarritako segurtasun-neurriek; izan ere, mugatu egin dira aurrez aurreko saioak, eta edukiera ere murriztu egin behar izan da.

Inplementatzen diren bitartean konpromisoen jarraipena egiteko, ebaluazio-erakunde independentearekin batera protokolo bat egingo da, honako hauek oinarritzat hartuta:

- Informazioa biltzeko eragiketak modu parte-hartzailean egingo dira; horretarako, taldeetako kideen balorazioak biltzen saiatuko gara: talde sustatzailea, foro erregularra, konpromiso-taldeak eta foro irekiak.
- Kontuan hartuko dira, halaber, OGP Euskadiren web-plataforman argitaratutako ebidentziak, bilerak egiteko dokumentuak, deialdiak eta aktak, argazkiak, bideoak, albisteak, parte hartzeko proposamen irekiak, antolatutako ekitaldiak...
- Erakunde ebaluatzaileak egokitzat jotzen dituen lan-saioetan eta antolatutako ekitaldietan parte hartu ahal izango du, sortutako lan-dinamikak kontuan hartu eta egoki baloratzeko, antzemandako irregulartasunen berri emateko eta prozesuak hobetzeko orientabideak eman ahal izateko.
- Jarraipenaren orientazioa, funtsean, ebaluazio batutzailea izango da, kuantifikazioari eta adierazle objektiboen bilketari dagokienez, baina, batez ere, prestakuntza-ebaluazioa izango da, hau da, etengabeko hobekuntzara bideratua.

G.3. Zer mekanismo daude ezarpenaz arduratzen diren erakundeei egindako aurrerapenei buruzko kontsultak egiteko?

Koordinazio- eta jarraipen-bilerak Talde Sustatzailean, Foro Erregularrean, Konpromisoaren araberako taldeetan eta Foro Irekietan.

OGP Euskadiren webguneko konpromiso bakoitzaren mugarren informazio-gordailua.

G.4. Nola partekatuko dituzte ebaluazioaren emaitzak gizarte zibilarekin?

Foro horietan eta OGP Euskadiren plataforman <https://www.ogp.euskadi.eus/hasiera/>

H. Gobernuz kanpoko eragileen babesa

Foro Erregularrean parte hartzen duten gizarte zibileko kideak:

Ana Molina. Mestiza Elkarteko lehendakaria

M^a Aranzazu Otaolea Velado. Bilboko Emakumeen Kontseiluko kidea

Eneko Agirre Illarramendi. Osoigo plataformaren sortzailea

Mikel Barturen Nuño. Euskadiko hirugarren sektore sozialeko Sareen Sarea plataformaren koordinatzailea.

Maialen Olabe Aguirre. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lehendakaria

Antxon Gallego Solaetxe. Gobernu irekian aditua den herritarra.

Joseba Terreros Luengas. ACOA-AKE Arabako Kontzeju Elkarteko lehendakaria

Arantza Cuesta Ezeiza. Eusko Ikaskuntzako zuzendaria

Elsa Fuente do Rosario. Unicef Euskadiko zuzendaria

Gotzon Bernaola Ariño. Innobasqueko Berrikuntza Publikoko zuzendaria